



# IBARRA VRS TOLOSA BARTOLOETAN

Nesken arteko sokatira desafioa antolatu dute bartoloetan; abuztuaren 22an ariko dira Bartola Gunean, 18:00etan 5

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2009-07-23

VII.URTEA 1.761.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Naive talde errioxarrak kontzertua eskainiko du Tolosan, Gau Giroko egitarauan, bihar Plaza Berrian. HITZA

## NAIVE, HILEKO AZKEN GAUGIRO SAIOAN 2



Maxi Eroki eta Araba etorbidearen arteko oinezkoentzako zubira materiala eramaten ari zen trailerra atzo. E. EZEIZA

## Zubiko lanetako kamioi bat irauli da Oria ibaira 2

## Maider Oviedoren argazkiak ikusgai daude Ostatuan

**HERNIALDE** Argazkigintzako ikasteketan eta bidaietan eginiko argazkiak erakusten ditu 4



Bere bidaietan ateratako argazkiek osatzen dute erakusketa. MAIDER OVIEDO

## Berastegiko lorategirik politenak bozkatzeko aukera 5



sarrerak

**EUSKAL JAIA**  
Billabona

HITZAK harpidedunentzat 2 afari bikoitz ditu

**Euskal Jaieko afaria**

Bildotsa burruntzian

Ekainak 25 • Larunbata • 21:00etan • Villabonako plazan



TXOKA hitza

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira harpidedun kodea eskura duzula



## Oria ibaian trailer bat irauli zen atzo

**ISTRIPUA** » Maxi Eroski eta Araba Etorbidea lotuko dituen zubia eraikitze lanetan ari zen trailer bat irauli zen atzo goizean. Duela aste batzuk hasi ziren eraikitzen Mari Eroski eta Araba Etorbidea lotuko dituen oi-

nezkoentzako zubia. Lanetara, materiala eramatera zihoan trailerra eta azkenean irauli egin zen. Goiz guztian horrela egon zen, eta ikusmin handia sortu zuen bertaratzen zirenen artean. **E. EZBEZA**

## Naive taldea igoko da bihar Plaza Berriko eszenatokira

**Kultura** » Gau Giroko uztaileko azken kontzertua izango da hau; 22:30ean hasiko da errioxarren emanaldia.

### ERREDAKZIOA

Errioxatik zuzen-zuzenean heldu dira Naive taldekoak Tolosara. Indie rock estiloko musika egiten duten musikari hauek kontzertua eskainiko dute Plaza Berrian, bihar. Emanaldia 22:30ean hasiko da, eta uztaileko Gau Giroko azken ekitaldia izango da.

*Naveity* da errioxarren estreinako diskoaren izenburua eta lau hitzetan laburtzen da Naiveren benetako izaera: sineskortasun, tolesgabetasun, bakuntasun, lainotasun. Ulermen arrazionalitateki ihes egiten duten alderdiak musikaren bidez irudikatzen dituzte, eta bide batez, gezurren aurka matxinatzea bilatzen dute, artifizialtasuna inguratzen duten gezurren aurka.



Naive talde errioxarra entzuteko aukera izango da bihar gauean. **HITZA**

Juan Carlos Santos (ahotsa, gitarra elektriko eta akustikoa, teklatuak, kornuak), Ruben Toribio (baxua) Miguel Solivera (bateria, perkusioa) eta Fernando de la Iglesiak (gitarra elektriko) osatzen dute taldea. Beraien erreferentzien artean daude: Nick Cave and The Bad Seeds, Hank Williams, PJ Harvey, Elvis Costello, The Strokes eta Saxi Sadie, besteak beste.

Honela diote beraiek, «lainoa izan, lainoegia nahi izanez gero, eta ñabardurez betetako mundu bat deskubritzeko aukera izango duzu, esan nahi baita melodiatik leku ilunenetarako bidean aurki daitezkeen estilo ezberdinez osatutako mundua ezagutu ahalko duzula, leku ilunenetan hamaika gauza deskubritzeko dagoelako oraindik. Lainotasunetik bakarrik gerturatu eta musikaz gozatu ahalko duzu. Lainoa izan, be naive».

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Tabernaria.** Aresoko taberna batek pertsona bat behar du herriko jaietan abuztuaren 15etik 18ra lan egiteko. Interesatuak deitu ondoren telefono zenbakira: 948 61 07 04.

■ **Tabernaria.** Neska euskalduna behar da Ikaztegiako ostatuan lan egiteko. Interesatuak deitu 635 20 35 62ra.

### Abuztuan beste bi kontzertu

Uda guztian izango dira musika emanaldian Tolosan. Biharkoaren ostean, hurrengoa, abuztuaren 22an izango da. Orduan, Lena Sinais jazz musikaria izango da protagonistak. Kontzertua, 22:30ean hasiko da eta Bide Bide jatekoak terrazan izango da.

Azken ekitaldia abuztuaren 28an izango da, 22:30etik aurrera, Plaza Berrian. Desordutan talde tolosarrak amaituko dute Gau Girorekin.

## Gaur, Gorostidiko egoera salatzeke manifestazioa

**Ekonomia** » Lantegiak egun bizi duen egoera latza dela eta mobilizatza deitzen dituen herritarrak, enpresa batzordeak.

### ERREDAKZIOA

Gorostidi enpresan bizitzen ari diren «egoera larria» dela eta, enpresako enpresa batzordeak deituta, gaur 18:30ean abiatuta manifesta-

zioa egingo dute. Triangulu plazan elkartuko dira garai horretan, eta ekitaldiaren amaieran idatzitako irakurriko dute. Manifa bukatu eta komunikatu bat irakurriko da.

Gorostidiko langileek ekimen honekin Tolosaldeko herritarrei beraien ezinegona eta kezka helarazi nahi diete. «Enpresak eskusluduan duen garrantzia» ikusita, bertan parte hartzeko deia luzatzen diete herritarrei.

## Gutunak

### Gorostidiko langileen borroka, denen borroka da!

Euskal Herria Sozialistak bere elkartzasun guztia ematen die behin behineko EREa jasaten ari diren Gorostidiko 160 pasatxo langileei. ERE honekin batera langileen soldaten ordainketa atzerapenak daude eta kezkatzekeoa dena: lantegiaren itxieraren aukera dago, hainbeste familia beren sostengu nagusia gabe utziz. Enpresak dirurik ez daukan aitzakia erabiltzen du, baina urteetan zehar irabaziak eduki izan ditu eta orduan ez zuen hauek langileei banatzea pentsatu. Zergatik izan behar dute orain langileak beren ustetako galerak ordaindu behar dituztenak?

Euskal Herri guztian zehar hamarnaka enpresa antzeko egoera batean daude, batzuk benetako krisian eta besteak berriz krisiaz aprobeztatzen ekoizpena beste herrialde batzuetara eramateko edo langileak beren lan baldintzak okertzea onartzera behartzeko, soldatak jaitziz, pagak ukaturaraziz, e. a. Baina batzuetan nahiz besteean kaltetuena langileak dira, duten gauza bakarra galtzen baitute: beren lanpostua. Horrelakoa da kapitalismoaren logika: dena ondo doan bitartean enpresari irabazi handiak dituzte langileen lanaren kontura eta, kasurik hoberenean, ogi apur batzuk jasotzen ditugu. Baina krisia etortzen denean kapitulistek uko egiten diote dirua galtzeari edo gutxiago irabazteari eta honetarako iraganeko konkistak erasotzera jotzen dute. Hau ezin dugu onartu. Arazoa da, ERE baikoitza enpresaz enpresa borrokatuz zailagoa dela erasoak gelditzea, eskualde edo probintzi bateko langileak altxatuko balira eta elkarturik borrokatuko balute baino. Maiatzaren 21eko greba orokorra arazoekin dauden Euskal Herriko langile guztiak batzeko lehen pauso ikaragarri bat izan zen, baina beharrezkoa da baturik borrokan jarraitzea.

Tolosaldeko eskualdean asko

dira arazoak dituzten enpresak. Gorostidiko langileek gaurko mobilizazioa deitu dute 18,30tan Tolosako Triangulu plazan. Deialdi hau aukera on bat izango litzateke zuzendaritza sindikalek berau aprobeztatuko balute eta krisian dauden enpresetako langileak batzeko kanpaina bat osatzera deituko balute. Indarra batasunean dago. Kapitalistek hau ongi dakite eta beren interesak defendatzeko batu egiten dira. Langileok ere berdina egin beharko genuke geureak defendatzeko, geureak kapitalisten aurkakoak baitira.

Iraganean, fabriken itxieraren eta nagusia galeratan zegoen aitzakiaren aurrean, Gorostidiko batzuk jada eskatu duten moduan, langileek oinarriko aldarrikapen bat garatu zuten: enpresak bere kontu liburuak erakutsi ditzala. Honek enpresak egia dioen edo gezurretan ari den erakutsiko luke. Ez badu egia esaten langileen aurrean enpresaren hipokresia agerian geratuko litzateke eta eraso amaitzeko presionatu ahalko lukete. Baina enpresak benetan dirurik ez duela erakusten badu, orduan zer egin? Beharrezkoa litzateke gure zuzendari sindikalek borroka bateratu bat burutzea lanpostu bakar bat ere gal ez dadin, eta hau, enpresa langileen kontrolpean nazionalizatuz bakarrik izango litzateke posible, hau da, diru publikoa gehiago zabalaren mesedetan erabiliz eta ez bankari apur batzei emateko orain gertatzen ari den bezala.

Kapitalismoa eguneroko bere benetako arpegi kriminala erakusten ari zaigu, langabeziara milioika gizon eta emakume bidaliz, ez dutelarik norajote guztiak ixten baitizkie. Ez dugu gutxi batzuen irabazi individuallean oinarritutako den sistema ekonomiko bat behar, gizartearen gehiengoaren kontrolpean demokratikoki antolatutako den ekonomia planifikatu bat baizik; gizarte sozialista bat behar dugu.

**Manu Odrizola.** Euskal Herria Sozialista aldizkariko kidea.

**Tolosako Udala**

**IRAGARKIA**

**PRESAZKO ABISUA**

**GORPUAK HOBIETATIK ATERATZEA**  
Tolosako udal kanposantuan 1992 eta 1997 urteen artean lurra emandako hildakoen familiakoei gogorarazten zaie 2009ko abuztuaren 12 arteko epea daukatela, gorpuk edo haiek dauzkaten gauzak erreklamatzeko, gorpuk honiek hezurtokira eramain baino lehen.  
Tolosan, 2009ko uztailearen 18an  
**ALKATEA**

Pasa den martxoan inauguratu zenetik ehunka pertsona pasa dira Usabalgo rokodromo berrietik, gainera, adin guztietako pertsoneri zuzendutako ikastaroek aparteko arrakasta lortu dute.

# Modan dagoen kirola

HARRIET BELLOSO

**T**olosaldeko eskalada zaleek arrazoi ugari dituzte pozik egoteko. Usabalgo kiroldegi berria ireki zenetik, rokodromo bat eraikitzeko ehunka proposamen egon dira, baina denek alde batean amaitzen zuten. Azkenean, urte asko zain egon eta gero, ametsak errealitate bihurtu dira eta herriko eskalatzaileak ez dira inguruko mendietara joan behar beraien kirol gustukoena praktikatzeko. Gainera, jarduera honek jarraitzaile asko irabazten ari da eta adin guztietako pertsoneri zuzendutako ikastaroak antolatu dituzte kiroldegian. Harrera apartekoa izan da eta eskalada moda igarokorra baino gehiago dela argi geratu da.

## Partaidetza altua

Eskalada ikastaroak pasa den urteko irailean hasi ziren eta lortutako arrakasta ezustekoa izan da antolatzaileentzat. Herrian zaletasuna sortzen ari da eta eskola hauek horren errodunak dira.

Azken hiruhilabetekoan hiru talde zeuden, helduek osatutako bi eta gaztetxoek osatutako beste bat. Guztira 30 pertsona zeuden eta multzo bakoitzean hamar. Nahiz eta ume gutxi egon, helduek baino lan gehiago ematen zuten. Beste bi taldeak «lasaigoak» ziren, diziplinatuagoak». Ikastaro hauetan gehienak mutilak ziren, baina rokodromo ireki zenetik, bertara jo-


aten diren emakumezkoen kopurua handitzen joan da. «Normalean, beraien mutil-lagunak praktikatzeko dutelako hasten dira, baina azkenean zaletasuna hartzen dute eta beraien kabuz joaten dira».

Ikastaldiak hiru hilabetekoak izan ohi dira eta ekaina amaieran amaitu ziren. Talde guztiak astean bi aldiz joaten dira entrenatzera, asteartetan eta ostegunetan, baina helduen eskolak luzeagoak izaten dira. Gainera, zenbait asteburutan saio bereziak egin dira jendeak kirola ezagutzeko eta partaidetza nahiko ona izan da. Mundu guztiak har dezake parte klase hauetan, baina kiroldegiko bazkideek guxtiago ordaintzen dute.

## Kirola ezagutzen

Ikastaro hauetan parte hartzeko ez da beste munduko mailarik eskatzen, ongi pasatzeko eta ikasteko gogoia baizik. Partaide gehienak hasiberriak dira eta kirola ez dute ondo ezagutzen, nahiz eta batzuetan adiskideekin mendira joan diren praktikatzera. Hala ere, lehendabiziko egunetik gogo askorekin joaten dira eskoletara eta ikastaroa amaitzen ez duten ikasleen kopurua txikia da. Bertan, eskalada egiteko beharrezkoa den materiala ezagutzen dute eta oinarritzko mugimenduak lantzen dituzte.

Umeen ikastaroan irakasle guztiak antolatzen ditu gauzak eta kontzeptuak azaltzeko, adin hauetan klase teknikoak oso asperga-



Ikastaroan umeek eskaladaren oinarriak ikasten dituzte HARRIET BELLOSO

riak izango lireratek eta. Eskola amaieran egun horretan ikasitako aplikatzen saiatzen dira eta denbora asko igarotzen dute rokodromoan gora-behera. Helduen klaseak «serioagoak eta teknikoagoak» dira eta maniobra konplexuagoak egiteaz gain, segurtasun arauak eta materiala nola erabili behar den ikasten dute.

Tresneria guztia, adibidez, arnesak eta mosketoiak, kiroldegia jartzen ditu, baina egun batean zerbait zehatzagoa egin behar bada, irakasleak berak eramaten du beharrezkoa den guztia.

## Usabalgoa, Gipuzkoako erreferentzia

Usabalgo proiektua aurkeztu zenean, Gipuzkoan erreferentzia izango zen rokodromoa egongo zela zin egin zuen udalak, baina agintzari hori atzeratzen joan zen eta ahaztean amaituko zuela zirudien. Eraikitze lanak 2005an hasi ziren, baina aurrekontu arazoak zirela medio, lana alde batera geratu zen. 2008an enpresa berri bati eman zitzaion lanaren ardura eta istorio honek amaiera ona izango zuela ikusi zen. Azkenean, Oargi eta Alpino elkarten eskakizunak bete egin ziren eta pasa den martxoaren 18an rokodromo berria inauguratu zuten. Egun berezi horretan, gainera, Edurne Pasaban mendigoizale tolosarra egon zen.

Instalakuntza honek 17 metroko altuera du, 280.000 mila euroko inbertsioa egin da bertan eta Usabalgo barne proiektuari amaiera ematen dio. Kirol ikusgarri hau sustatzeko egin da eta maila guztietako eskalatzaileak aritzeko egin da, ez goi-mailakoak bakarrik. Modu honetan, *Autobelyarekin* hornituta dauden lau ibilbide daude eta ez dira inongo segurtasun tresnarik behar bertatik mugitzeko.

Guztira hiru paretak daude eta rokodromo azpiko lurzorua 40mm-ko lodiera duen serumarekin estalia dago. Bere ondoan, kirol honetako azken berrikuntzak dituen Bulderra jarri da. Hemen deigarriena bere zabalera da, 20 metrokoa, eta umeak mugitzeko eremu berezia dago. Adituen

ustez, Usabalgo rokodromoa erabateko instalakuntza da, baina oraindik zenbait ezaugarri txiki falta direla diote.

Hasiera batean, mendian aritzen den jendeak entrenatzeko toki bat edukitzeko diseinatu zuten, baina lehen aipatutako ikastaroak egiteko ere erabiltzen da, oso aproposa baita. Gainera, datorren ikasturtera begira erabiltzaileek proposamen ugari egin dituzte, adibidez, txapelketa bat antolatu

## Ikastaroan oinarritzko mugimenduak eta segurtasun arauak irakasten dituzte

## Herriko kirol dendetan eskalada egiteko materialaren salmenta igo egin da

edo erakustaldi bat egin jendeak kirol honen xehetasunak ezagut ditzan.

Egitasmo honek zalantza asko sorrarazten zituen Tolosako kirol zaleen artean, baina denborarekin beharrezkoa zela ikusi da. Harreara apartekoa izan da eta herriko kirol dendetan eskalatzeko materialaren salmenta igo egin da.

Zaletasuna sortzen hasi da eta arratsalde batean kiroldegitik pasatzearekin aski da hori ikusteko. Hilabete hauetan lortutako arrakasta ikusi eta gero, eskaladak izugarritzko etorkizuna du herri honetan.



Usabalgo kiroldegian goi-mailako instalakuntzak daude kirol praktikatzeko. HARRIET BELLOSO



Ingalaterran argazkigintzako unibertsitate ikasketak egin zituen Ovidok eta ikasketa amaierako proiekturako ingeles dekorazioa hautatu zuen gai bezala. HITZA

# Ingeles dekorazioa eta bidaiak

**Hernialde**» Maider Ovidok argazkilariak erakusketa jarri du Ostatuan; abuztuaren bukaeraino ikusgai daude bere argazkiak.

**IMANOL GARCIA**

Maider Ovidok argazkilariaren erakusketa ikusgai dago Hernialdeko Ostatuan. Tolosan jaioa, hainbat urte Donostian eman ondoren, egun Hernialden bizi da eta Anoetan du bere estudioa. Ingalaterran argazkigintzari lotutako unibertsitate ikasketak egin zituen. Hain justu, erakusketan dauzen hiru argazki, ikasketa amaierako proiektukoak dira.

Ovidok azaltzen duenez, «proiekturako aukeratu nuen gaia ingelesek duten dekoratzeko gustu arraroa da. Londongo gauza bat da, modako azken gauzekin, eta horrik aparte beste mundu bat dago, oraindik viktoriar erara bizi dena. Proiektuan hori erakutsi nahi nuen eta horko hiru argazki jarri ditut». Horietako bat konketa hori bat da, bestea komuneko alfonbratxo bat kortinen gainean jarrita eta

hirugarrena burko bat da, argia pizteko aparailuarekin.

Beste argazkiak Ovidok egin-dakozen bait bidaietakoak dira, Japoniara, Kubara, Vietnamera eta Mexikora. «Erretratoak daude eta baita paisaiak ere, baina hirietako paisaiak, horiek baitira gustatzen zaizkidanak», azaltzen du.

## Bakoitzak bere istorioa

Esaterako, emakume baten argazkia dago, bi txakurrekin, Mexikon ateratakoa. «Esan zidan errusiarrak zela baina han bizi zela eta supermerkatu batean atean zegoen zeuzkan txakur txiki horiek saltzeko», dio argazkilariak.

Beste argazki bat, Vietnamen ateratakoa, itsasontzi batean familia guztia azaltzen da. Merkataritza aritzen dira Mekong ibaian eta bertan bizi dira. «Gu itsasontzian bertan izan ginen, fruta eskaini ziguten eta beraiekin egonginen hitz egiten eta gero atera nizekin argazki batzuk», gogoratzen du Ovidok.

Argazkiek bere istorioa dute atzean. Ez dira une bat bakarrik. «Ez dut gauza bat ikusten eta berehala argazkia ateratzen. Jendea ateratzen diodanean, beraiekin egoten naiz hizketan».

Ovidok Hernialdeko Ostatuan jarri duen erakusketa bere lehe-

nengoa da. «Pentsatuta neukan zer bait egitea», dio. «Ostatuan jarritan dituzte batzuetan erakusketak. Ostatuakoei esan nien argazkilaria nintzela. Nik publizitatea lantzen dut batez ere estudioan, baina alde artistikoa ere lantzen dut. Eta erakusketarako niri gustatzen zaizkidanak eta etxean dauzkadan argazki batzuk aukeratu nituen».

Argazkilaria oporretan dago orain eta oraindik ez daki zernolako harrera izan duen erakusketak. Argazkiak ikusi nahi dituenak abuztuaren 31ra arte du horretarako aukera.



Bidaletan zehar atera dituen argazkiak erakutsi ditu, tartean Kubako kaleetan ikus daitezkeen autoena. HITZA

## Hilberriak

### RAMONA ARTOLA AMONDARAIN

Andrea  
Uztailaren 21ean hil zen, 78 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
-Goian bego-

Amona, zerutik maitasunaz begira iguzu eta erakutsi diguzun bidea jarraitzen lagun iguzu.

**Zure bilobak: Aitor, Amaia, Leire, Maialen, Ohiane, Xabat eta Irati**



**ALTZO**  
2009ko uztailaren 23a

Helbidea: Errekalde baseria

### IÑAXIO ALBERDI

Erribera kalea, sudokiak, zigarro-kea... zauden lekuan ba al dago horrelakorik? Bertan hartuko dugu XALDA BEROA.



**ZUMAILA**  
2009ko uztailaren 23a

**Xaldaberonekuak**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

# Ibarrako eta Tolosako nesken sokatira desafioa bartoloetan

**Ibarra** » Herri bakoitzeko hamarna neska bildu dira eta abuztuaren 22an ariko dira Bartola Gunean 18:00etatik aurrera.

REBEKA CALVO

Orain bost urte inguru Ibarrako festetan herriko 24 neskek sokatira apustua egin zuten eta sortu zen «giro ona» ikusita aurreten esperientzia errepikatzea erabaki dute. Aurtengoan, hala ere, formatua aldatzea erabaki dute eta Ibarrako eta Tolosako nesken arteko sokatira desafioa izango da. Bartoloen jaien barruan izango da hori, abuztuaren 22an, larunbata, 18:00etan Bartola Gunean.

**Apustu «sendoagoa»**

«Aurtengo Bartola jaietarako ere apustu sendoagoa egin nahi zuten Bartolak eta nesken arteko sokatira apustua egingo genuen ala ez galdetu zigun. Helburua herri kirolak bultzatzea eta emakumeen parte-hartzea bultzatzea zen eta horregatik egin ziguten eskaria emakumeen desafioa egiteko», argitu du Bartola Jai Batzordeak.

Azkenean Tolosari bota diote desafioa eta baiezkota eman dute, entrenatzen ari dira, orain, jo eta su. «Bartolaren filosofiarekin

bat egiten dugu baita: jaiak herritik herrira egiteko leloarekin. Bertakoak gara, giro herrikoa bultzatzen dugul...», gaineratu dute.

«Elkarrekin entrenatzen dugu, gure artean giro ona dugu, noski pikea sortuko dela, baina gure asmoa giro ona sortzea da, horregatik entrenatzen dugu elkarrekin. Desafioa eta gero elkarrekin afalduko dugu baita», gaineratu du. Izan ere, Ibarra badute harrobia, Imanol eta Lander Otermin anaiak txapelketa ugari irabazi dituzte, biak daude, hain justu, entrenatzaile lanak egiten.

«Guk Ibarra Imanol eta Lander Otermin ditugu, sokatiralari bikainak dira eta bagenekien beste herrietan ez zutela aukera bera izango, horregatik erabaki genuen entrenamendua elkarrekin egitea», azaldu du Bartola Jai Batzordeak. 10 lagun bildu dira talde bakoitzean eta bosteko lau talde sortuko dituzte ligaxka moduko bat egiteko.

**«Geroz eta hobeto ari dira»**

Ibarrako zein Tolosako neskek ikuskizun «polita» eskaini nahi dute eta horregatik ari dira astean bitan entrenatzen.

Lander Otermin entrenatzaileak esan duenez, «geroz eta hobeto ari dira, entrenamenduetan dena den, Tolosako neska gehiago etor-



Ibarrako Belabietan entrenatzen dute neskek astean bitan. R. CALVO

tzen dira eta ondo ari dira». Neskek ez dute egiteko makala, hala ere, «ez da erraza, lehenengoan teknika hartzea zaila da, ibilita ikasten da, baina ari dira», esan du Oterminek.

Entrenatzailearen ustez, «ikusizun polita eskainiko dute, borroka pixka bat egongo da». Izan ere, «ez da desberdintasun handirik egongo taldeen artean, tiradak

nahiko berdinduak izango dira», aurreratu du ibartarrak.

Ibarrako desafioa, dena den, nesken arteko sokatira zaletasuna bultzatzeko ere baliatu nahi du Oterminek: «Ea jende gehiago animatzen den sokatira, nik probatu nahi duten guztiei Ibarrara etortzera animatu nahi diet, bai Ibarrakoak eta baita Tolosakoak ere gustura ari dira eta».

## San Bartolome jaietako koadrilen bazkaria

ERREDAKZIOA

Ibarrako San Bartolome jaietako koadrilen bazkarirako txartelak hiru egunetan jarriko dituzte salgai herriko plazan 19:30etik 21:00etara. Bazkaria abuztuaren 25ean izango da.

Lehen eguna gaur bertan izango da, eta beste biak datorren asteazkena, hilak 29, eta abuztuaren 5a izango dira.

Bazkarirako tiketek 22 euro baliatu dute eta antolatzaileek parte hartu nahi duten koadrila guztiei txartelak aipatutako egunetan erosteko eskatzen diete.

## Garagardo Azokako zozketako azken hiru zenbakiak esan dituzte

ERREDAKZIOA

Pasa berri den Villabonako Garagardo Azokako antolatzaileek ostiraleko, larunbateko eta igandeko zozketako zenbakiak esan dituzte; 209,1417 eta 985, hurrenez hurren. Zenbakiak dituztenei 699 058 241 (Agustin) telefonora deitzeko eskatu diete. Saridunek OIentzo jate-txean afari bat jasoko dute.

Osteguneko zozketak badu irabazlea, Anoetako Mikel Aierbe.

# Berastegiko lorategirik politenak bozkatzeko epea ireki dute jada

ERREDAKZIOA

Berastegiko Udalak astelehenean ireki zuten *Berastegi lorez blai* lehiaketan bozka emateko epea. Parte hartu nahi duten herritarrek bi bozka eman behar dituzte: bal-koi, leiho edo terraza dotoreenari, batetik, eta lorategi politenari, bestetik. Bozkatzeko epea hilaren 30ean amaituko da eta bi bide daude: Udaleko webgunean ematea ([www.berastegi.com](http://www.berastegi.com)) edo udal-txean 09:00etatik 13:00etara, Gaztainondo Elkartearen 16:00etatik 20:00etara eta Elduako Kultur Etxean.

Udalak esan duenez, internetez Udaleko webguneak ez ditu bi bozketa batera egiten uzten etaberraz bozkak emateko bi epe jarri dituzte. Bihar arte lorategien txapelketarako bozkak eman daitezke. Horretarako fototekan zintzilika-


turik dauden argazkiak ikusi daitezke, argazki bakoitzak zenbaki bat du eta ondoren, webgunean eskuinaldean dagoen atalean eman daiteke bozka. Emaitzak ere bertan ikus daitezke. Hilaren 25etik 30era, berriz, leiho, terraza eta bal-

koi dotoreenak bozkatu ahal izango dira webgunean lorategiekin egin bezala.

Bozketako emaitza abuztuaren 7an, salontzoetan, egingo dute herri afariaren ostean emango dute jakitera.



Atzo webgunean Martintxone Arantxa Egimendiak zuen puntu gehien. HITZA



# NORA JOAN BADA UDAN

**Jaiak** » Uda iristearrekin hainbat herritako patroiak ere gogoratzen dira eta hauekin, festa batzordeek eta Udaletxeek antolatutakoak: Altoz, Ibarako San Inazio auzoa, Larraul, Leitza, Berastegi, Albiztur, Orendain eta Baliarrainen esaterako.

## » EGITARAUAK HERRIZ HERRI

### ALTZON SAN INAZIOAK

#### Uztailak 30, osteguna

- **16:30.** Jaien hasiera.
- **Ondoren.** Karrakan Trakatan fanfarre euskalduna (trikitixa, gaitak, alboka, perkusio ezberdinak).
- **Jarraian.** Artea eta Alurr dantz taldeak, Loatzoko ikasleen musika emanaldiarekin.
- **19:30.** Herriko korua elizan.
- **20:00.** Presoen aldeko elkarretaratzea herriko pilotalekuan.
- **20:30.** Zikiro-jatea.
- **00:00.** San Inazio ereserkiak.
- **Ondoren.** Joselu anaia.

#### Uztailak 31, ostirala

- **08:30.** Goiz eresia.
- **10:00.** Meza nagusia.
- **11:00.** Jubilatuen hamaiketako.
- **11:30.** Erlojuaren aurkako afizionatu mailako txirindularien XVIII. Altzoko igoera (Calcinor saria).
- **17:30.** Herri kirolak: aizkorarekin Azurmendi eta Arrospeide; Aimar Irigoien harriarekin eta Altoz, Amezketeta eta Jaizubia harri-zulatazailleak.
- **Tartean.** Kupela taldea.
- **22:30.** Bertso saioa herriko pilotalekuan: Peñagarikano, Irazu, Soto, Arzallus, Elortza eta Mendiluze. Gai-jartzailea: Manu Olano.
- **Ondoren.** Laiotz goizaldera arte.
- **Atsedendian.** Txokolatada jolas.

#### Abuztuak 1, larunbata

- **10:30.** Ume jolasak.
- **15:30.** Mus Txapelketa azkarra herritarrentzat (izena 16:00ak baino lehen eman).
- **Ordu berean.** Plater hausketeta herrikoia (antolatzaileak ez dira ezbeharen arduradun egingo).
- **17:30.** XIII. Pilota Txapelketaren finalak frontoi zaharreen.
- **19:30.** Atejoka antzezlanaren elizan (Kutxak finantzatuta).
- **Ondoren.** Herriko trikitaliak.
- **21:00.** Sagardo-dastatzea (kaxola bakoitzak berea eraman!).
- **00:00.** Unsain anaia goizaldera arte.
- **Atsedendian.** Aulki jokua.

#### Abuztuak 2, igandea

- **11:30.** II. Herri Patata tortilla lehiaketa.

- **12:00.** Txakolin probaketa.
- **Tartean.** Toka txapelketa.
- **16:00.** Pilota partidak frontoi berriari. Kadeteetan Artola-Mujika eta Nazabal-Zabala; paletan neskek, Manzidor-Montes eta Pirola-Argain; afizionatuetan Renobales-Galarraga eta Larrañaga-Uzkudun.
- **18:30.** Olgetan erromeria jazz banden formatuan trikitixa, perkusioa eta haizezko Euskal Herriko tresnak.
- **21:00.** Zahagi ardoa.
- **Jarraian.** Ansoregi eta Larrañaga trikitaliak festen amaieran.

### IBARRAKO SAN INAZIO AUZOAN SANINAZIOAK

#### Uztailak 31, ostirala

- **09:30.** Meza.
- **10:30.** Pintxoak.
- **11:00.** Futbol partida: ezkongabeak ezkonduen aurka.
- **18:00.** Mus txapelketa.
- **22:30.** Musika emanaldia: Peachy Joke eta Agoraphobia.

#### Abuztuak 1, larunbata

- **10:30.** Haur festa: jokoak, tailerrak...
- **13:00.** Poneyak (Balerdi anaia).
- **18:00.** Patata tortilla lehiaketa.
- **18:00.** Alurr Dantza Taldea.
- **19:30.** Pintxo dastaketa eta txokolate-jatea.
- **21:30.** Herri-afaria.
- **Ondoren.** Musika DJ batekin.

#### Abuztuak 2, igandea

- **10:00.** Trikitaliak.
- **12:00.** Aizkolariak: Unai Otaño eta Iñaki Azurmendi.
- **13:00.** Sari-banaketa.
- **13:15.** Bertsolariak: Santi Etxeberria, Juanito Begiristain eta Iñaki Odriozola.
- **Ondoren.** Jai amaierako traka.

### LARRAULEN SANESTEBANAK

#### Uztailak 31, ostirala (haurren eguna)

- **11:00.** Puzgarriak frontoian.
- **14:00.** Haurren bazkaria Katillutxulo Elkartearen.
- **16:00.** Puzgarriak.
- **19:00.** Txupinazoa eta Pello Jo-

- xeperen jaitxiera Buruhandi eta Gurdri Soinu herriko txarangarekin.
- **20:00.** Toka.
- **21:00.** Zikiro afaria Urbeltz plazan.
- **23:00.** Dantzaldia Gabezin taldearekin.

#### Abuztuak 1, larunbata

- **11:00.** Plater tiraketa herritarrentzat.
- **16:00.** Mus txapelketa Katillutxuloan.
- **18:00.** Zahagi: *Kanpanilla eta Peter Panen itzala* Kultur Etxean.
- **21:00.** Afaria Herri Ostatuan.
- **23:00.** Dantzaldia Kupelarekin.

#### Abuztuak 2, igandea

- **11:00.** Esku pilota txapelketa.
- **12:30.** Pintxo txapelketa: osagai guztiak norbere kontu.
- **13:00.** Sagardo dastaketa: Aburuz, Zabala, Gaztañaga, Sarasola.
- **18:30.** Bertso saioa. Amets Arzallus, Xabi Paya, Uxue Alberdi eta Iker Zubeldia. Gaiak jartzen herriko bertso taldea.
- **20:30.** Eneritz eta Edurne trikitaliak arratsaldean eta gauean.

#### Abuztuak 3, astelehena

- **11:00.** Meza Nagusia.
- **11:30.** Hamaiketako herrikoia Katillutxuloan.
- **13:00.** Haur jolasak eta buruhandiak.
- **18:00.** Herri Kirolak: herritarrak.
- **20:00.** Ansoregi eta Larrañaga trikitaliak arratsaldean eta gauez.
- **Oharrak.** Kañabera bat egongo da plazan bere luzera zehatza asmatzeko.
- Museoa irekita egongo da jai egun guztietan (10:00-14:00 eta 16:00-19:00).
- San Bartolome egunean, zozketa-rtzen den karretilaren zenbakia aterako da plazako eskenatokia.

### LEITZAN SANTIBURTZIOAK

#### Abuztuak 8, larunbata (Reparto Eune)

- **14:00.** Poteoa gaiteroekin.
- **16:00.** Auzoz auzo Plazaola aldizkariaren banaketa; trikitaliak, txistulari, akordeoilaria eta gaiteroen laguntzak.
- **17:00.** Txirindulariak industrialdean.
- **18:30.** Kalejira eta txoznen irekiera.
- **22:00.** Plazan: Lesakako banda; Leitzaoko Jeiki abesbatza; Aurrerako dantzariak; akordeoilaria, txistulariak...
- **00:00.** Kontzertuak Gaztetxean: Biok eta Pog Mathon.

#### Abuztuak 9, igandea (Umeen Eune)

- **08:00.** Diana txistulariekin.
- **11:30.** Umeen txupinazoa udaletxetik.
- **Ondoren.** Aurrera Pilota Eskolako gazteak ariko dira plazan.
- **11:30-14:30.** Puzgarriak eta jokoak.
- **16:30-18:30.** Puzgarriak eta tailerrak.
- **18:30.** Aurrerako dantzari txikien ikuskizuna eta umeen inguruxto irekia plazan. Ondoren gurgildun zezenak plazan.
- **Ondoren.** Kalejira gaiteroekin.
- **20:00-00:00.** Trikidantz taldea.

#### Abuztuak 10, astelehena (Pesta bezpera)

- **11:00.** Kuadrilen arteko herri kirolak plazan.
- **14:30.** Presoen aldeko bazkaria eta bazkalostea Kuxuxtu txarangarekin.
- **18:00etan.** Txupinazoa eta Plazaola aldizkariak azalaren egileari saria. Ondoren Incansables, txistulariak, gaiteroak, buruhandiak...
- **22:00.** Suzko zezena.
- **00:00.** Tximeleta taldea.
- **01:00.** Incansablesen erronda.

#### Abuztuak 11, asteartea (Pesta Eune)

- **08:00.** Diana Txistulariekin.
- **09:00.** Entzierroa eta behiak plazan, ondoren gurgildun zezenarekin entzierroa.
- **10:30.** Meza, ondoren hamaiketako irekia Karrapen.
- **12:00.** Aurrerako *Ezpatadantza*. Ondoren, afizionatuen arteko pilota partidak.
- **13:00.** Aurreratik Incansables txaranga aterako da.
- **18:00.** Zezenak Plazan.
- **19:00.** Herri kirolak. Ondoren, goxokiak banatuko dira.
- **19:30.** Buruhandiak Incansables txarangarekin.
- **22:00.** Suzko Zezena.
- **00:00.** Laket taldea.
- **01:00.** Incansablesen erronda.

#### Abuztuak 12, asteazkena

- **08:00.** Diana Txistulariekin.
- **09:00.** Entzierroa eta behiak plazan, ondoren gurgildun zezenekin entzierroa.
- **12:00.** Kulkirekin ume-jolasak.
- **13:00.** Aurreratik Incansables txaranga aterako da.
- **17:30.** Zezenak Plazan.
- **18:30.** Aurrerako Dantzarien emanaldia plazan eta ondoren goxokiak banatuko dira.
- **19:30.** Incansables Txaranga aterako da Aurreratik.

- **19:30.** Pilota partida profesionala Amazabal pilotalekuan.
- **21:30.** Suzko Zezena.
- **22:00.** Herri apartaia plazan. Ondoren afalostea eta kalejira Incansables txarangarekin.
- **03:00.** Leitzeiko *Inguruxoa* plazan.

#### Abuztuak 13, osteguna

- **08:00.** Diana txistulariekin.
- **09:00.** Entzierroa eta behiak plazan, ondoren gurgildun zezenekin entzierroa.
- **11:00.** Paella lehiaketa eta Aurrerako pilotari gazteen partidak plazan.
- **13:00.** Aurreratik Incansables txaranga aterako da.
- **18:00.** Zezenak plazan.
- **19:00.** Bertsolariak plazan: Egaña, Soto, Peñagarikano, Lujanbio, Maialen Arzallus eta Elortza. Ondoren goxokiak banatuko dira.
- **19:30.** Buruhandiak eta Incansables txaranga.
- **22:00.** Suzko zezena.
- **00:00.** Garraxi taldea plazan.
- **01:00.** Incansables txaranga aterako da erronda egitera.

#### Abuztuak 14, ostirala (Gazte Eune)

- **08:00.** Diana Txistulariekin.
- **09:00.** Entzierroa eta behiak plazan ondoren gurgildun zezenekin entzierroa.
- **11:30.** Goitiberak.
- **13:00.** Aurreratik Incansables.
- **14:00.** Bazkaria Gaztetxean.
- **17:00.** Gazteen jokoak plazan. Zezenekin batera zenbait joku egingen dira.
- **18:00.** Zezenak Plazan.
- **19:00.** Orkresta taldearekin kalejira.
- **22:00.** Suzko zezena.
- **23:00.** Kontzertuak plazan: Habeas Corpus eta Zesatek. Zpeziz Mukaki taldearen kalejira ikuskizuna.
- **01:00.** Incansables txaranga.

#### Abuztuak 15, larunbata (Ezkondu eta bikoteen eune)

- **08:00.** Diana txistulariekin.
- **09:00.** Entzierroa eta behiak plazan, ondoren gurgildun zezenekin entzierroa.
- **12:00.** Herri kirolak plazan.
- **13:00.** Aurreratik Incansables txaranga aterako da.
- **14:30.** Aurrerako bazkideen bazkaria.
- **18:00.** Ezkonduen eta bikoteen entzierroa eta zezenak plazan.
- **19:00.** Ezkondu eta bikoteen Inguruxoa plazan, ondoren buruhandiek Incansables. Plazan

**Beti Alai**  
jatekoa

Garaian garaiko janariak  
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

musika eskolako emanaldia eta goxokiak ere banatuko dira.  
**■ 22:00.** Suzko zezena.  
**■ 00:00.** Euskal musika, euskal kantuen emanaldia Prefosta taldearen eskutik.  
**■ Ondoren.** *Pobredemie* Incansables txarangarekin.

### BERASTEGIN SALONTZOAK

#### Abuztuak 7, ostirala

**■ 12:00.** Txupinazoa.  
**■ 12:30.** Fronteniseko finalak.  
**■ 19:00.** Herri kirolak: Urepeleren eskutik aizkora eta trontza probak. Basurde elkartearen aurka, berriz, harri-tiraketa desafioa.  
**■ 20:30.** Perku-poteoa.  
**■ 21:30.** Herri-afaria.  
**■ Ondoren.** Lore Txapelketa: sariari banaketa.  
**■ 23:00.** Musika taldea: Erdizka-lauetan.

#### Abuztuak 8, larunbata (koadrilen eguna)

**■ 10:00.** Goiz deia.  
**■ 11:00-13:00.** Patata tortilla txapelketa eta bitartean, Gorriti haurrentzat.  
**■ Ondoren.** Tortilla dastaketa txakolinarekin.  
**■ 14:00.** Koadrilen bazkaria.  
**■ 17:30.** Koadrilen arteko jokoak.  
**■ Ondoren.** Sagardo dastaketa sardina erreekin.  
**■ 19:30.** Toka Txapelketa herrikoia eta Txintxurrine Txapelketa.  
**■ 23:30.** Musika taldea: Laket.  
**■ Oharra:** Egurdian hasita arratsaldera bitarte Koskola txaranga egongo da.

#### Abuztuak 9, igandea

**■ 09:00.** Goiz deia.  
**■ 15:30.** Benjamin, alebin eta infantilen arteko pilota finalak.  
**■ Ondoren.** Karreapeko pilota partidak.  
**■ 19:00.** Bertsolariak: Aitzol Barandiaran, Ander Lizarralde, Unai Gaztelumendi, Iker Zubeldia, Uxue Alberdi eta Iñigo Gorostartzu.  
**■ 22:30.** Alurren dantza emanaldia.  
**■ 00:00.** Lain eta Ze esatek.

#### Abuztuak 10, astelehena (Salontzo eguna)

**■ 09:00.** Goiz deia.  
**■ 09:30.** Meza San Lorentzo ermitan. Mountain-bike igoera herrikoia eta hamaiketakoa.  
**■ 11:30.** Meza Nagusia San Martinen, Perosiren obra kantatuarekin.  
**■ 12:00.** Afizionatuen pilota partidak.  
**■ 17:00etan.** Motozerra Txapelketa.  
**■ 19:00.** Dantza emanaldia: San Juan dantza, herriko neska-mutilen dantza eta dantza-soka.  
**■ 23:30.** Garraxi taldea.

#### Abuztuak 11, asteartea (umeen eguna)

**■ 09:00.** Goiz deia.  
**■ 10:00-13:00.** Puzgarriak.  
**■ 17:00.** Potxin eta Patxin.  
**■ 18:30.** Haurren dantza emanaldia.  
**■ 20:00-21:30.** Laiotz.  
**■ 00:00.** Laiotz taldea berriz.

**■ Oharra:** Festetako egun guztietan, Gaztainondo Elkartean, urtean zehar egindako eskulan eta taila erakusketa. 16:00etatik 20:00etara.

### ALBIZTURKO AMABIRJINAK

#### Abuztuak 13, osteguna

**■ 12:00.** Jaien hasiera kanpaien doinuekin, suziri eta bonben jaurtiketaz. Kalejira buruhandiekin eta Albizturko txistulariekin.  
**■ 14:00.** Gazte-bazkaria.  
**■ 18:00.** Triki poteoa herriko trikitilari gazteekin.  
**■ Ondoren.** Koadrilen arteko jokuak.  
**■ 19:30.** Sagardo txapelketa.  
**■ 23:00.** Elustondo anai-arrebekin erromeria goizaldera arte.

#### Abuztuak 14, osteguna

**■ 15:30-17:30.** Haur parkea.  
**■ 18:30-20:30.** Haur parkea, gaztelu puzgarriekin, eta apar festa.  
**■ 17:30.** Haurrentzako jolasak.  
**■ 20:30.** Meza.  
**■ 21:00.** Herri afaria (zikiro-jatea).  
**■ Ondoren.** Laja II.a eta Larrañagarekin erromeria.

#### Abuztuak 15, larunbata

**■ 15:30-17:30.** Goizean Albizturko txistularien kalejira.  
**■ 11:15.** Meza Nagusia.  
**■ Ondoren.** Herriko gaztetxoaren arteko pilota partidak.  
**■ 18:00.** Ikusgarri taldea; motozerraz egindako egur lanak.  
**■ 22:00.** Herri arteko pilota partidak. Albiztur Bidegoianen aurka (San Anton harrobiaren eskutik).

**■ 00:00.** Arandia anaiekin erromeria.  
**■ Goizaldean.** Txokolatada.

#### Abuztuak 16, igandea

**■ 11:15.** Meza Nagusia.  
**■ Ondoren.** Toka herrikoen artean eta adinekoentzako hamaiketakoa.  
**■ 18:00.** Baserriko lanak eta bertsoak uzartuta. Oiloak lumatzen, artoa aletzen, sutarako egurra moztzen, lasto fardoak jaurtitzen... ariko dira herriko gazteak. Hauxe laguntzen izango dira Hamaika Bertuteko lau bertsolari (San Anton harrobiaren eskutik).  
**■ 21:00.** Barrikotea eta patata tortilla txapelketa.  
**■ 22:30.** Malbadi eta Izaskunekin trikiti doinuekin jaipei amaiera emango zaie.  
**■ 23:00.** Malbadi eta Izaskunekin trikiti doinuekin jaipei amaiera emango zaie.  
**■ 00:00.** Arandia anaiekin erromeria.

### ORENDAIN, AMA BIRJINA

#### Abuztuak 13, osteguna (ume eta gaztetxoaren eguna)

**■ 16:00.** Suziria.  
**■ 16:15.** Ume jolasak.  
**■ 18:00.** Merienda.  
**■ 20:00.** Sardini erreak eta txistorra herriko plazan.

#### Abuztuak 14, ostirala (Mozorro gaua)

**■ 19:00.** Suziriak.  
**■ 19:15.** Herri poteoa trikitibertsolariekin. Denak mozorrotuta etorri!!  
**■ 21:00.** Kostilla jatea herriko plazan.  
**■ 23:00.** Kupela taldearekin goizaldera arte.

#### Abuztuak 15, larunbata (Ama Birjinaren eguna)

**■ 10:00.** Suziriak eta buelta kanpaiak.  
**■ 11:15.** Meza nagusia elizan.  
**■ 12:00.** Txakolin dastaketa mokadu goxoekin.  
**■ 12:30.** Herriko dantzari txikien saioa.  
**■ 17:00.** III. Zaldi lasterketa.  
**■ Ondoren.** Preso eta iheslarien alde herriko bi taldeen arteko herri kirol saioa.  
**■ 21:00.** Afaria.  
**■ 23:00.** Triki hots taldearekin dantzaldia goizaldera arte izango da.

#### Abuztuak 16, igandea

**■ 10:00.** Suziriak eta buelta kanpaiak.

**■ 11:00.** Meza nagusia herriko hildakoen alde.  
**■ 12:00.** Txirindulari lasterketak herriko plaza inguruan (0-5 urte, 6-8 urte 8-11 urte). Alegiatik igoera (12-16ra eta 17tik gora).  
**■ Ondoren.** Sari banaketa.  
**■ 14:00.** Herri bazkaria Eltxo elkartean.  
**■ 16:00.** Umeentzat puzgarriak.  
**■ 18:30.** VII. Toka Txapelketa.  
**■ 20:30.** Patata tortilla lehiaketa. Ordu berean ekingo diote tortilla probatzeari.  
**■ Ondoren.** Herri afaria.  
**■ 23:00.** Pilota partidak: herriko lau pilotari gazte eta ondoren 4 pilotari helduen pilota partida.  
**■ Ordu berean.** Trikitilariak plazan.

### BALIARRAINEN ANDRE MARI JAIK

#### Abuztuak 14, larunbata

**■ 11:00etan.** Jaien hasiera, suziri eta zintzarriekin.  
**■ 12:00.** Sagardo dastaketa eta patata tortilla lehiaketa. Begiristain sagardotegia (Ikaztegieta), Aulia sagardotegia (Legorreta), Zabala (Aduna) eta Isastegi (Tolosa).  
**■ 17:00.** Haur jolasak.  
**■ Iluntzean.** Trikitixotx, Amaia Agirre eta Iker Zubeldia bertsolariekin eta Unsain taldeak alaiturik, herrian zehar.  
**■ Ondoren.** Zahagi ardoa plazan Amaia Agirre eta Iker Zubeldiarekin.  
**■ Bukatzeko.** Unsainekin goizaldera arte.

#### Abuztuak 15, larunbata


**■ 11:00.** Meza nagusia.  
**■ 12:00.** XLVII. Txirindulari igoera, XXI. Jexux Nazabalen oroitzepean.  
**■ Ondoren.** Urarte taldea.  
**■ 18:00.** 2. mailako Euskal Herriko Aizkolari finalerdiko kanporaketa.  
**■ Ondoren.** Urarte taldea.  
**■ 23:00.** Pilota partida: Renobales eta Mendizabal, lau t'erdian.  
**■ Ondoren.** Urarterekin goizaldera arte.

#### Abuztuak 16, igandea

**■ 11:00.** Meza nagusia.  
**■ Ondoren.** Hirugarren adinekoentzat hamaiketakoa.  
**■ 12:00.** Herri krosa eta Toka Txapelketa.  
**■ 18:00.** Poxpolo eta Mokolo.  
**■ 21:00.** Herri afaria.  
**■ Ondoren.** Eta goizaldera arte Bide batez taldea.



Herriko jai gehienetan haurrentzako puzgarriak izango dira. IMANOL GARCIA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Villabona.** Bihar Santio jaien hasiera: Iraunkorrek txaranga 17:45ean, txupinazoa 18:00etan, erraldoi eta buruhandiak 18:15ean, futbito finala 19:30ean, afari herrikoa 21:00etan, danborrada 23:00etan eta Triki take 24:00etan.

### Erakusketa

■ **Hernialde.** Maider Ovidoren argazki erakusketa herriko ostatuan.  
■ **Tolosa.** Karlos Irazuren *Kolpez Kolpe* eskultura eta egurgintza erakusketa eta Pelex artistaren *Hotsez Hots* eskultura erakusketa Aramburu Jauregian.  
■ **Tolosa.** Itziar Albisuaren koadroak Lanbroa tabernan.

### Ikastaroak

■ **Lekua.** TAKEk arraun ikastaroa antolatuko du abuztuko hamabostaldirako. Izen-ematea, 943 536400 telefono zenbakian.

### Zinema

■ **Tolosa.** *Ice age 3* filma Leidor aretoan bihar eta etzi 19:30ean eta igandean 17:00etan.

### Deialdiak

■ **Amasa-Villabona.** Mendizale-



## Asteroko azoka bihar izango da

**TOLOSA** ● Asteroko azoka egun bat aurreratu dute aste honetan, larunbatean Santio Eguna dela eta. Jai eguna da egutegi ofizialean eta ondorioz Zerkausiko baserriarren salmenta postuak eta Euskal Herria pla-

zako postuak bihar ezarriko dituzte, ostiralarekin, Turismo eta Feriak sailak informatu duenez. Datorren astean ohiko zitari erantzun dio azokak eta berriz ere larunbatean izango da tolosar guztien eskura. HITZA

en argazki, diapoak eta dokumentazio berezia biltzen ari da Aizkardi. Uztailaren bukaerara arte materiala jasotzen jarraituko dute elkartean (Larrea auzoa 18 B) uztailaren 23an, 20:30etik 10:00etara edo 620554937 telefonoan.

■ **Amezketako Gazte Taldeak** pilota txapelketa herrikoia antolatuko du. Txapelketa honetako final-laurdenak noiz jokatu diren erabakitze bilerara egingo dute gaur 20:30ean baloianitzeko gelan.

■ **Tolosa.** Udako liburategia Usabal igerilekuan, astelehenean, larunbatera 15:00etatik 19:00etara bitarte.

### Mendi irteerak

■ **Tolosa.** Hilaren 31rako Encantats-Pegueira mendi irteera antolatuko dute Oargik eta Topaguneak. Informazioa, [www.zazpitantrian-gulon.com](http://www.zazpitantrian-gulon.com).

### GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarrea, 1. 943 673649.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearrena, M. Amaia kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



## harpidedun izateak badu saria

① 2 lagunentzako  
egonaldia

Atxaspi hotolean

asteburuko egonaldia gosariarekin

Bittiria 24, 31770 Lesaka (Nafarroa)  
Tel.: 948 637 536



② 2 lagunentzako  
otordua

Elketa jatetxean

Hernialde (Gipuzkoa) • tel.: 943 65 99 92



③ 4 diskoz osaturiko  
sorta

baga-biga  
disketxearen eskutik



④ HITZako materiala



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen  
**TXOKOA hitza** info